

## **Kataluniarekiko Elkartasun Taldeak aurkezten duen Kataluniarekiko Elkartasun Adierazpena**

### Sarrera:

2012. urtean Kataluniako gizarteak eta baita bertako ordezkari politikoak independentzia eskuratzeko bideari ekin zion. Bide horretan hainbat mugarri egon dira eta jendartearen mobilizazioa baketsua eta eredugarria izan da. 2017ko urriaren 1ean egindako galdeketa izan zen horietako bat. Egun hartan gizarte zibilaren antolaketa eta galdeketa defentsa eredugarria izan zen.

Hala ere, Espainiako Estatuak ez du berdin jokatu: milaka polizia bidali zituen; polizia jendea kolpatu zuen eta indarrez ekidin nahi izan zuten jendeak bozkatu ahal izatea... Ondoren atxilotak hasi ziren, lehendabizi Jordi Cuixart eta Jordi Sanchezen atxiloteta. Gero, Legebiltzarreko eta Gobernuako agintarien atxiloteta. Eta azkena, joan den astelehenean, irailak 23, bizi izan dugun polizia operazioa dugu, epaiaren aurkako erantzuna kriminalizatzeko helburu garbia duena.

Urriaren 1go hamabostaldirako espero da prozesu honen aurkako epaia. Zoritxarrez, guztiak kartzelan mantendu izanak eta fiskaltzaren eta epaileen jarrerak epaia gogorra izango dela ikustarazten digute.

Honengatik guztiarengatik, Lasarte-Orian eurekiko elkartasuna adierazteko taldea eratzea erabaki dugu, eta gure herriko Udalbatzari ondorengoa onartzea eskatu nahiko genioke:

1.- Lasarte-Oriako Udalbatzak Kataluniako gatazkari konponbidea topatzeko bide poliziala eta judiziala arbuiatzea. Eta elkarrizketa eta negoziazioaren bidea aldarrikatzea.

2.- Lasarte-Oriako Udalbatzak Espainiako Gobernuari eskatzen dio bertan behera utz dezala oinarrizko eta funtsezko askatasunen errepresio-estrategia, demokraziaren oinarrizko printzipioen aurkakoa.

3.- Lasarte-Oriako Udalbatzak berretsi egiten du funtsezko printzipio demokratiko guztiekiko konpromisoa, eta elkartasuna adierazten die Catalunya-ko herriari, eta baita demokraziaren aurkako errepresio politikoa –Espainiako Gobernuak gidatutakoa– pairatzen diharduten pertsona eta erakunde guztiei.

4.- Lasarte-Oriako Udaltzako dei egiten du Kataluniako herriaren asmo demokratikoaren adierazpena ahalbideratzea eta erabakiak errespetatzera.

5.- Epaia ateratzen den unean, eta aurreikusten den moduan, kartzela zigorra ezartzen bada, Lasarte-Oriako Udaltzako "estelada" bandera jartzea onartzen du, Kataluniako instituzio eta herritarrei gure babesa adierazi asmoz.

6.- Lasarte-Oriako Udaltzako honek, epaia deitoratzeko antolatzen diren mobilizazioetara herritarrak parte hartzerantz deitzen ditu.

Lasarte - Orián, 2019ko urriaren 1ean

Izpta. Kataluniarekiko Elkartasun Taldea.

A handwritten signature in blue ink, appearing to be 'KAT', with a long horizontal stroke underneath.